EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila

Doktorego-tesia

Entitate izendunen desanbiguazioa ezagutza-base erraldoien arabera

Ander Barrena Madinabeitia

2016

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
Lengoaia eta Sistema Informatikoak Saila

Entitate izendunen desanbiguazioa ezagutza-base erraldoien arabera

Ander Barrena Madinabeitiak Eneko Agirre Bengoa eta Aitor Soroa Etxaberen zuzendaritzapean egindako tesiaren txostena, Euskal Herriko Unibertsitatean Informatikan Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua.

Donostia, 2016ko abendua.

Eskerrak

Lehenik eta behin, nire tesiko zuzendariak eskertu nahi nituzke. Batetik, asteroko bileretan artikuluak komentatzen eta autoreak kritikatzen pasa ditugun orduengatik. Bestetik, arloaren egoera hobetzen duen artikulu bakoitza erronka berri bat bilakatzeagatik. Gainera, *Emacs*ek bizitza errazten dizula erakusteagatik, eta nola ez, terminaleko ingurune zuri-beltzean nahi den guztia egin daitekeela erakusteagatik. Baina batez ere, eskainitako laguntza guztiarengatik, horregatik ez balitz tesi hau ez litzateke posible izango eta. Horregatik guztiagatik, eta ahaztu zaizkidan gauzengatik: Eskerrik asko Aitor eta Eneko!

Bigarrenik, familia eskertu nahiko nuke. Aita, ama eta anaiari nire tesian interesa azaltzeagatik, *disanbigueixon* behin eta berriro esateagatik eta aldioro noiz bukatuko dudan galdetzeagatik (batez ere, aurkezpenera eta lunchera etortzeko duten gogoagatik). Nire amonari aurkezpenera etortzeko arropa bost hilabete lehenago prestatzeagatik eta aurkezpena ikusteko duen gogoagatik. Osaba-izebei eta lehengusu-lehengusinei, familiako doktorea izango denari animoak bidaltzeagatik. Bizkaiko familiari eskerrak eman nahi dizkiot, aipamen berezia eginez *Ga* eta *Owa* deitzen didazuen bikotetxoari.

Arrasateko lagun eta koadrilakoei eskerrak eman nahi dizkiet, tesiak iraun duen denbora honetan ez ditut askotan bisitatu, baina beti hor egongo direla badakit. Tesi honen bukaera, behar den bezala, zuekin ospatu nahiko nuke. Bestalde, nire pixukideak izan zareten guztioi ere eskerrak eman nahi dizkizuet. Bereziki, hasieratik eta orain arte elkarrekin jarraitu dugun hirukoteari.

Ixakideei ere eskerrak eman nahi dizkiet. Uneoro laguntzeko prest egon

zaretelako eta lanerako giro ezin hobea sortu duzuelako. Batez ere, 318 bulegoko faunari, txisteen listoia gero eta beherago jartzeagatik, eta platano bat bulegoan jatea "taboo" bat bihurtzeagatik.

Tesi hau iraun duen denboran Donostian ezagutu dudan jende guztiari eskerrak eman nahi dizkiot. Batez ere, olatuak nirekin partekatu dituzuen horiei, zuekin ñoñostiar bat gehiago sentitu naizelako. Negu hotzetan, dardarka, Ondarretako olatuan momentu ahaztezinak igaro ditugun kortxero guztiek, aipamen berezia merezi dute. Gezurra badirudi ere, tesirako inspirazio momentu gehienak uretan gertatu dira. Besterik gabe, tuboooo!

Azkenik, eta nola ez, eskerrik asko Nerea. Egiten dudana ulertzeko egin duzun esfortzuagatik, jarri duzun interesagatik eta momentu guztietan nire alboan egoteagatik.

Guzti-guztioi, berriz ere, eskerrik asko!

Esker instituzionalak

Euskal Herriko Unibertsitateari, ikerketa-lan hau egiteko emandako ikertzaileak prestatzeko bekarengatik.

Laburpena

Gaur egun, interneten nabigatzeko orduan, ia-ia ezinbestekoak dira bilatzaileak, eta guztietatik ezagunena Google da. Bilatzaileek egungo arrakastaren zati handi bat ezagutza-baseen ustiaketatik eskuratu dute. Izan ere, bilaketa semantikoekin kontsulta soilak ezagutza-baseetako informazioaz aberasteko gai dira. Esate baterako, musika talde bati buruzko informazioa bilatzean, bere diskografia edo partaideetara esteka gehigarriak eskaintzen dituzte. Herrialde bateko lehendakariari buruzko informazioa bilatzean, lehendakari izandakoen estekak edo lurralde horretako informazio gehigarria eskaintzen dute. Hala ere, gaur egun pil-pilean dauden bilaketa semantikoen arrakasta kolokan jarriko duen arazoa existitzen da. Termino anbiguoek ezagutza-baseetatik eskuratuko den informazioaren egokitasuna baldintzatuko dute. Batez ere, arazo handienak izen berezien edo entitate izendunen aipamenek sortuko dituzte.

Tesi-lan honen helburu nagusia entitate izendunen desanbiguazioa (EID) aztertu, eta hau burutzeko teknika berriak proposatzea da. EID sistemek testuetako izen-aipamenak desanbiguatu, eta ezagutza-baseetako entitateekin lotuko dituzte. Izen-aipamenen izaera anbiguoa dela eta, hainbat entitate izendatu ditzakete. Gainera, entitate berdina hainbat izen ezberdinekin izendatu daiteke, beraz, aipamen hauek egoki desanbiguatzea tesiaren gakoa izango da.

Horretarako, lehenik, arloaren egoeraren oinarri diren bi desanbiguazio eredu aztertuko dira. Batetik, ezagutza-baseen egituraz baliatzen den eredu

globala, eta bestetik, aipamenaren testuinguruko hitzen informazioa ustiatzen duen eredu lokala. Ondoren, bi informazio iturriak modu osagarrian konbinatuko dira. Konbinazioak arloaren egoerako emaitzak hainbat datumultzo ezberdinetan gainditukо ditu, eta gainontzekoetan pareko emaitzak lortuko ditu.

Bigarrenik, edozein desanbiguazio-sistema hobetzeko helburuarekin ideia berritzaileak proposatu, aztertu eta ebaluatu dira. Batetik, diskurtso, bilduma eta agerkidetza mailan entitateen portaera aztertu da, entitateek patroi jakin bat betetzen dutela baieztatuz. Ondoren, patroi horretan oinarrituz eredu globalaren, lokalaren eta beste EID sistema baten emaitzak modu adierazgarrian hobetu dira. Bestetik, eredu lokala kanpotiko corpusetatik eskuratutako ezagutzarekin elikatu da. Ekarpen honekin kanpo-ezagutza honen kalitatea ebaluatu da sistemari egiten dion ekarpena justifikatuz. Gainera, eredu lokalaren emaitzak hobetzea lortu da, berriz ere arloaren egoerako balioak eskuratuz.

Tesia artikuluen bilduma gisa aurkeztuko da. Sarrera eta arloaren egoera azaldu ondoren, tesiaren oinarri diren ingelesezko lau artikulu erantsiko dira. Azkenik, lau artikuluetan jorratu diren gaiak biltzeko ondorio orokorrak planteatuko dira.

Gaien aurkibidea

1

Sarrera

Tesi-lan hau hizkuntzaren prozesamenduaren alorrean kokatzen da. Alor honetako gakoa hala beharrez, testu hutsa makinak ulertzea da. Testuaren ulermenerako karaktere-kateak identifikatu, eta hauek dagokien adierekin lotzea ezinbestekoa da. Adibidez, ingelesez idatzitako testu honetan:

Three of the greatest guitarrist
started their career in a single band:
Clapton, Beck and Page.[1]

Esate baterako, *band* hitza musika taldea edo gorputza babesteko oihal zatia izan daiteke (Agirre and Edmonds 2007,Navigli 2009, Agirre *et al.* 2014). Hitz batek bere testuinguruan duen adiera zuzena esleitzeari hitzen adiera desanbiguazioa esaten zaio (HAD). Adieren artean egokia aukeratu beharrean, karaktere-kateak zuzenean Wikipediako artikulu egokietara lotzea Wikifikazio gisa ezagutzen da (Mihalcea and Csomai 2007; Milne and Witten 2008b). Wikifikazioak testuaren ulermenetik haratago, Wikipediako ezagutza entziklopedikoa gehituz, testuaren aberasketa dakar.

Hala ere, arreta berezia eskatzen duten karaktere-kateak existitzen dira, izen-aipamenak hain zuzen ere. Izen propioa duten pertsona, leku edo erakundeak testuetan anbiguetate oso handia duten izen-aipamenekin azaltzen dira. Adibidez, adibidean azaldu den *Beck* aipamena `Jeff_Beck`[2] edo

[1] Tesian ingelesezko datuak eta baliabideak erabiliz ikertu da, horregatik, adibide guztiak ingelesez daude.

[2] `http://en.wikipedia.org/wiki/Jeff_Beck`

`Beck_Hansen`[3] musikarien artean desanbiguatzea, oraindik ere erronka handia izaten jarraitzen du (Milne and Witten 2008b). Ataza hau entitate izendunen desanbiguazio gisa ezagutzen da.

1.1 Entitate izendunen desanbiguazioa (EID)

EID atazak edozein testutan azaltzen diren izen-aipamenak ezagutza-baseko entitateekin lotzean datza. Helburua 1.1 irudian azaltzen den adibidean *Clapton*, *Beck* eta *Page* izen-aipamenak `Eric_Clapton`, `Jeff_Beck` eta `Jimmy _Page` entitateetara lotzea da:



1.1 irudia – Testuko izen-aipamenak ezagutza-baseko entitateetara lotzen.

Entitateak izaera errepikaezina duten pertsona, leku edo erakundeak dira, eta ezagutza-baseetako instantziak dira. Ezagutza-baseek entitateak eta entitateekin erlazioa duten informazio egituratua gordetzen dute, horien adibide DBpedia (Bizer *et al.* 2009)[4], Wikidata[5], BabelNet (Navigli and Ponzetto 2012a) edo Freebase (Bollacker *et al.* 2008)[6] dira. Askotan, ezagutza hau modu erdi automatikoan eskuratzen da Wikipediako artikulu eta infotauletan[7] oinarrituta. Adibidez, `Jeff_Beck` artikuluaren infotaulan aurkitu

[3] `http://en.wikipedia.org/wiki/Beck`
[4] `http://wiki.dbpedia.org/`
[5] `http://www.wikidata.org/wiki/Wikidata:Main_Page`
[6] `http://wiki.freebase.com/wiki/Main_Page`
[7] Infotaulak wikipediako artikuluetan goi-eskuinaldean azaltzen informazio kutxak dira.



1.2 irudia – Wikipedian `Jeff_Beck` entitatearen infotaula, eta beste entitateetara estekak. (Iturria: `http://www.wikipedia.org` Data: 2016-10-24)

daitekeen informazioa hau da: jaiotze data eta lekua, musika estiloak, instrumentuak, sariak, erlazionatutako taldeak etab (ikus 1.2 irudia). Informazio hau Wikipediako orrietara estekatuta dago, beraz entitateen arteko erlazioak eskuratzeko, eta bide batez, ezagutza-baseen egitura sortzeko baliabide ezin hobea dira. Esate baterako, infotaulatik erlazio hauek erauzi daitezke:

- `Jeff_Beck` < *jaioterria* > `Wallington`
- `Jeff_Beck` < *musika estiloa* > `Blues_Rock`
- `Jeff_Beck` < *erlazionatutako taldea* > `The_YardBirds`

Artikulu eta infotauletako erlazio erauzketak, ezagutza-basea grafo gisa errepresentatzera eramaten du. Grafo honetan `Eric_Clapton`, `Jeff_Beck` eta `Jimmy_Page` entitateak, eta musikarekin zer ikusia duten erlazioak aukeratuz 1.3 irudian ikus daitekeen azpigrafoa sortu daiteke. Musikariek talde askotan parte hartu duten arren, hiruak talde bakarrean jo zuten elkarrekin.



1.3 irudia – DBpediako ezagutza-basean musikari eta musika taldeen arteko erlazioak erakusten dituen diagrama. (Iturria: `http://www.visualdataweb.org/relfinder/relfinder.php` Data: 2016-07-11)

Talde hau zein den jakiteko hiru entitateen artean dauden erlazioei esker `The_Yardbirds`[8] dela egiaztatu daiteke.

Ezagutza-baseen erabileraren adibide argia Google Knowledge Graph[9] da. Google 2012. urtetik aurrera bilatzailearen kontsulten emaitzak bilaketa semantikoekin aberasten hasi zen. Bilaketa semantikoek ezagutza-baseetako informazioa ustiatzen dute. Horren adibide, Googlen *Jeff Beck* bilatuz gero ohiko web orriak bueltatzeaz gain, entitate horri lotutako informazio gehigarria azaltzen da (ikus 1.4 irudia). Informazio hau Wikipedia eta beste ezagutza-baseetatik eskuratzen dute, bide batez erabiltzaileari informazio guztia klik bakarrera hurreratuz. Bertan ikus daiteke nola kontsulta soil horrek ezagutza-baseari esker eskuratu duen informazio guztia: informazio

[8] `http://en.wikipedia.org/wiki/The_Yardbirds`
[9] `http://en.wikipedia.org/wiki/Knowledge_Graph`



1.4 irudia – Google Knowledge Graph. (Iturria: `http://www.google.com` Data: 2016-09-11)

pertsonala, bere abesti ospetsuenen zerrenda, sare sozialetako orrietara estekak, diskografia...

Hala ere, bilaketa semantikoen arrakasta kolokan jarriko duen arazoa izen-aipamenen anbiguetatea da. Esate baterako, *Beck* izenak hainbat entitate erreferentziatu ditzake, adibidez `Jeff_Beck` edo `Beck_Hansen` musikariak, baina *Beck* izeneko mendi, laku edo irlak ere badaude.[10] Berdina gertatzen da *Clapton*[11] eta *Page*[12] izenekin. Beraz, 1.1 irudiko izen-aipamenak `Eric_Clapton`, `Jeff_Beck` eta `Jimmy_Page` entitateetara lotzen ez badira, testu horrentzat ezagutza-baseetatik eskuratuko den informazioa ez da egokia izango.

Izen-aipamenak desanbiguatzeko EID sistemek jarraituko dituzten urratsak hiru dira:

[10] `http://en.wikipedia.org/wiki/Beck_(disambiguation)`
[11] `http://en.wikipedia.org/wiki/Clapton`
[12] `http://en.wikipedia.org/wiki/Page`



1.5 irudia – Beck izen-aipamenarentzat Wikipediatik lortuko liratekeen entitate-hautagaien zerrenda.

1. urratsa: testuan azaltzen diren izen-aipamenak identifikatzea da. Tesilan honetan eskuz identifikatutakoak erabiliko dira (1.1 irudian azpimarratuak dauden *Clapton*, *Beck* eta *Page* adibidez).

2. urratsa: izen-aipamenak izanda, entitate-hautagaiak sortzea. Adibidez, *Beck* aipamenarentzat, beste batzuen artean, 1.5 irudian azaltzen diren entitate-hautagaiak sortuko dira.

3. urratsa: izen-aipamenaren desanbiguazioa da. Kasuan kasu, hautagaien artean dagokion entitate egokia aukeratzea izango da. Tesi honen aportazioak urrats honetan egingo dira.

1.2 Oinarrizko EID sistemak

EID sistemen desanbiguazio-urratsean jarriko dugu arreta tesi honetan, alegia, testuko izen-aipamenak identifikatu eta bakoitzarentzat hautagai posibleak eskuratu ondoren. Hautagai egokia aukeratzeko desanbiguazio sistemak bi azpimultzo nagusitan banatzen dira (Ratinov *et al.* 2011), algoritmo globalak eta algoritmo lokalak, hain zuzen ere. Bi metodoak aipamena inguratzen duen testuinguruan oinarritzen dira.

1.2.1 Algoritmo Globalak

Testuinguruko aipamenetatik abiatuz, hautagai guztien artean koherenteak direnak aukeratzen dituzten algoritmoei, algoritmo global esaten zaie (Agirre



1.6 irudia – Entitateak Wikipediako hiperesteken grafoan. Marra etenak entitateen artean hiperestekak daudela errepresentatzen dute. Geziak aipamen eta hautagaien arteko erlazioa.

et al. 2014). Demagun, 1.1 irudiko adibidean *Page* `Jimmy_Page` gitarjolea dela dakigula. Hori kontuan izanda, erraza litzateke beste biak ere gitarjoleak direla jakitea. Ideia hau ezagutza-basea grafo gisa errepresentatuz gauzatu daiteke: adibidez Wikipedia oinarri hartuta adabegiak artikuluak izango dira eta ertzak artikuluen arteko hiperestekak (ikus 1.6 irudia). Hiperesteken grafoak argi erakusten du hautagaien konbinazio koherenteena zein den, hiru musikariena hain zuzen. Beraien artean ageri baitira hiperesteka zuzenak. Grafoaren egitura ustiatzeko algoritmoaren berezitasunak 3. eta 4. kapituluetan sakonduko dira.

1.2.2 Algoritmo Lokalak

Algoritmok lokalak izen-aipamena inguratzen duten testuinguruko hitzetan oinarritzen dira. Algoritmo batzuek testuingurua errepresentatzeko ordena gabeko hitz multzoak erabiltzen dituzte (Han and Sun 2011). Adibidez, 1.1 adibidean *Beck* desanbiguatzeko bere testuinguruko hitzekin multzo bat sortuko da.

- *Beck* $\{three, of, the, greatest, guitarists...clapton, and, page\}$

Ondoren, *Beck* aipamenaren entitate-hautagaietako bakoitzarentzat (`Beck_Hansen`, `Jeff_Beck` eta `Beck_Weathers` adibidez) ezagutza-baseko testuinguruekin hitzen multzoak sortuko dira:

- `Beck_Hansen` $\{musician, album, cover,$ **guitarists**$...\}$.
- `Jeff_Beck` $\{$**guitarists**, **page**, **clapton**, $jimmy...\}$.
- `Beck_Weathers` $\{everest, disaster, jenkins, richard...\}$.

Algoritmo lokalek izen-aipamenaren hitz multzoa eta entitate-hautagaien hitz multzoen artean dagoen antzekotasuna erabiltzen dute. Kasu honetan, beltzez nabarmendu dira desanbiguatu nahi den multzoarekiko amankomunean dituzten hitzak. Adibidean erraz ikus daiteke multzo antzekoena `Jeff_Beck` entitatearena dela. Ezaugarri lokalak ustiatzeko algoritmoaren berezitasunak 3. eta 5. kapituluetan sakonduko dira.

1.3 Motibazioa eta ekarpenak

Tesi-lan honen motibazio nagusia EID sistemen azterketa eta metodo berrien proposamenak dira. Honekin, ezagutza-baseen erabilera egokia eta bilaketa semantikoen arrakasta bultzatu nahi da. Motibazio honi lotutako ekarpenak bi izango dira:

- Lehenik, ezaugarri globalak ustiatzeko eredu berritzailea planteatu eta ebaluatu da, ezaugarri globalak EID atazan aplikatuz. Ekarpen honek ezagutza-basea grafo gisa errepresentatuz izen-aipamenak desanbiguatzea ahalbidetzen du. Gainera, grafoa eraikitzeko metodologiak desanbiguazioan duen ekarpena neurtu da (4. kapitulua).
- Bigarrenik, ezaugarri lokalak ustiatzen dituen sistema bat oinarritzat hartu, eta algoritmo globalarekin konbinatu da. Ekarpen honekin, batetik, eredu lokalen ekarpena neurtu da, eta, bestetik, bi informazio iturriak osagarriak direla erakutsi da. Konbinaketa honi esker arloaren egoerako emaitzak lortu dira (5. kapitulua).

Tesiaren bigarren motibazioa EID sistemak dituzten gabeziak gainditzeko edo emaitzak hobetzeko edozein sistemak barneratu ditzakeen teknika eta ezaugarri gehigarriak ikertzea da. Horretarako, orain arte arloaren egoeran jorratu ez diren bi ideia berritzaile proposatu, aztertu eta ebaluatu dira. Motibazio honi lotutako ekarpenak hauek dira:

- Lehenik, diskurtso, bilduma eta agerkidetza mailan entitateen portaera aztertu da, eta entitateek kasu guztietan patroi jakin bat betetzen dutela ikusi da. Ondoren, propietate hau hiru EID sistemetan barneratu da, eta azkenik, emaitzetan hobekuntza esanguratsuak dituztela ikusi da (6. kapitulua).

- Bigarrenik, etiketatu gabeko kanpotiko corpusetatik ezagutza eskuratu, eta desanbiguazioan egin dezakeen ekarpena aztertu da. Horretarako, EID sistema lokala informazio honekin elikatu da. Sistemak kanpo-ezagutza barneratuz emaitzak hobetzen dituela ikusi da. Baliabide honen kalitatea ere ebaluatu da, bide batez, kanpotiko ezagutzak dakarren ekarpena justifikatzeko (7. kapitulua).

Bestalde, tesi honetan hainbat baliabide ekoiztu dira:

- EID burutzeko softwarea eta baliabideak sortu dira. Alde batetik, algoritmo globalak erabiliz, beste aldetik, algoritmo lokalak uztartuz, eta azkenik, biak konbinatuz. Ekarpen hauek 4. eta 5. kapituluetan aztertzen dira.

- Entitateen portaera eta propietateak aztertzeko datu-multzoak prestatu dira. Ekarpen hau 6. kapituluko emaitzak frogatzeko erabili da.

- EID sistemak kanpo-ezagutzaz elikatzeko baliabideak sortu dira. Ekarpen hau 7. kapituluan ekoiztu da.

1.4 Tesiaren egitura eta osatzen duten argitalpenak

Tesia artikuluen bilduma gisa aurkeztuko da. Sarrera eta arloaren egoeraren atalak azaldu ondoren, hurrengo lau kapituluak (4,5,6 eta 7) ingelesez argitaratu diren artikuluak dira. Tesiaren egitura orokorra mantentzeko artikuluen formatuak aldatu dira. Gainera, formulak eta terminologia bateratu egin dira dokumentuaren osotasuna mantentzeko.

- **1. kapitulua** Sarrera.
- **2. kapitulua** Wikipedia, entitateen ezagutza-basea.
  - Atal honek tesi honen ardatz nagusia den Wikipedia aztertuko du. Izan ere, garatu diren sistemek erabiliko duten ezagutza-basea eta baliabide nagusia da.
- **3. kapitulua** Arloaren egoera.
  - Kapitulu honetan arloaren egoera errepasatu, eta EID sistemak sakonago aztertuko dira. Gainera, tesi honetan garatu diren sistema eta baliabideak ulertu ahal izateko azalpenak emango dira.
- **4. kapitulua** Algoritmo globalak, ausazko ibilbideak Wikipedia grafoan.

  Eneko Agirre, Ander Barrena and Aitor Soroa. ***Studying the Wikipedia Hyperlink Graph for Relatedness and Disambiguation.*** *arXiv.org CoRR 2015.*

  - Artikuluen bildumako lehen artikuluan Wikipediatik erauzitako grafo ezberdinak aztertuko dira antzekotasun eta desanbiguazio atazetan. Horretarako, Wikipediatik hiperesteka ezberdinen ekarpena ebaluatuko da. Eredu globalak EID atazan aplikatuko dira hainbat datu-multzo ezberdinetan emaitzak emanez.
- **5. kapitulua** Algoritmo globalak eta lokalak konbinatzen.

  Ander Barrena, Aitor Soroa and Eneko Agirre. ***Combining Mention Context and Hyperlinks from Wikipedia for Named Entity Disambiguation.*** *Proceedings of the Fourth Joint Conference on Lexical and Computational Semantics *SEM 2015.* Denver, Colorado, USA. 2015.

  - Bigarren artikuluak tesi honetan garatu den algoritmo lokala aztertuko du, ordenarik gabeko hitz multzoetan oinarritzen dena. Bestalde, aurreko artikuluan erabili den eredu globalarekin konbinatuko da. Konbinazio honek arloaren egoerako emaitzak gaindituko ditu hainbat datu-multzotan, eta besteetan sistema hoberenen besteko emaitzak lortuko ditu.

- **6. kapitulua** Entitate bakarra diskurtsoan eta agerkidetzan.

  Ander Barrena, Eneko Agirre, Bernardo Cabaleiro, Anselmo Peñas and Aitor Soroa. ***"One Entity per Discourse" and "One Entity per Collocation" Improve Named-Entity Disambiguation.*** *Proceedings of the 25th International Conference on Computational Linguistics COLING 2014.* Dublin, Ireland. 2014.

  – Hirugarren artikuluak entitateek corpusetan betetzen duten propietate bat aztertuko du. Propietate honen arabera, testu batean izen-aipamen berdina behin baino gehiagotan azaltzen bada, %96-98an entitate berdina erreferentziatuko du. Azterketa hau testuetatik agerkidetza sintaktikoetara zabalduko da, propietateak %91-98an betetzen jarraitzen duela ikusiz. Azkenik propietate hau sistema ezberdinen desanbiguazioaren emaitzan aplikatuko da, testuan aipamen berdinari usuen azaldu den entitatea esleituz. Teknika erraz honek aztertu diren sistema guztietan emaitzak modu adierazgarrian hobetuko ditu.

- **7. kapitulua** EID sistemak kanpo-ezagutzaz elikatzen.

  Ander Barrena, Aitor Soroa and Eneko Agirre. ***Alleviating Poor Context with Background Knowledge for Named Entity Disambiguation.*** *Proceedings of the 54th Annual Meeting of the Association for Computational Linguistics ACL 2016.* Berlin, Germany. 2016

  – Laugarren artikuluak eredu lokala oinarritzat hartu, eta kanpotiko corpusetatik lorturiko informazioaz elikatuko du. Kanpo-ezagutzak sistemaren emaitzak hobetuko ditu arloaren egoerako emaitzak lortuz. Bestalde, informazio gehigarri honen azterketa sakona egingo da bere erabilgarritasuna frogatzeko.

- **8. kapitulua** Ondorioak eta etorkizuneko ildoak.

  – Kapitulu honetan ideia orokorrak laburbildu eta ondorio nagusiak azalduko dira. Gainera, etorkizunerako lanak planteatuko dira egindako ikerketak aurrera jarrai dezan.

1.5 Bestelako argitalpenak eta kolaborazioak

Jarraian EID atazaren inguruan egin diren gainontzeko argitalpenak eta kolaborazioak zerrendatuko dira. Bide batez, tesi honetan garatu diren EID sistemen aplikazio errealak azalduko dira.

- **UKP-UBC Entity Linking at TAC-KBP.**

  Nicolai Erbs, Eneko Agirre, Aitor Soroa, Ander Barrena, Ugaitz Etxebarria, Iryna Gurevych, Torsten Zesch. ***UKP-UBC Entity Linking at TAC-KBP.*** *Text Analysis Conference, Knowledge Base Population 2012.* Mariland, USA. 2012.

  – Artikulu honek Text Analisys Conference - Knowledge Base Population *TAC-KBP*[13] konferentzian *Entity Linking* atazan argitaratutako sistemaren oinarriak laburbiltzen ditu. Konferentzia honetako helburua testu hutsetik entitate-izendunen ezagutza-baseak eraiki eta aberasteko sistemak garatzea da. Horretarako, txapelketa ezberdinak antolatzen dituzte. Ikerlari talde ezberdinek beraien sistemen emaitzak eman, eta parte hartzaile guztien artean sailkapena egiten dute. Argitalpen honetan urtero antolatzen den *Entity Linking* atazan 2012. urtean aurkeztu zen sistemaren oinarriak azaltzen dira.

[13] `http://tac.nist.gov/`

- **UBC Entity Linking at TAC-KBP 2013: random forests for high accuracy.**

  Ander Barrena, Eneko Agirre and Aitor Soroa. ***UBC Entity Linking at TAC-KBP 2013: random forests for high accuracy.*** *Text Analysis Conference, Knowledge Base Population 2013.* Mariland, USA. 2013.

  – Ildo beretik, 2013. urtean antolatu zen *TAC-KBP* Entity Linking atazako sistemaren nondik norakoak azaltzen dira. Tesi honetan azaltzen diren sistema global eta lokalaren konbinaketa bitartez, atazako bigarren emaitzarik onena lortu zen. Sistemak ausazko erabaki-zuhaitzetan oinarritutako algoritmoa erabiltzen du bi algoritmoen ezaugarriak konbinatzeko.

- **UBC Entity Discovery and Linking and Diagnostic Entity Linking at TAC-KBP 2014.**

  Ander Barrena, Eneko Agirre and Aitor Soroa. ***UBC Entity Discovery and Linking and Diagnostic Entity Linking at TAC-KBP 2014.*** *Text Analysis Conference, Knowledge Base Population 2014.* Mariland, USA. 2014.

  – Oraingoan, 2014. urtean *TAC-KBP* Entity Linking atazarako garatu zen sistemaren artikulua aurkezten da. Urte honetako atazan aipamenen identifikazioa, desanbiguazioa eta klaseetan sailkatzea eskatzen zuten. Aurreko urtean aurkeztutako sistema hedatu zen atazako beharretara. Emaitzetan ikusi zen sistemak atazaren beharrei taxuz erantzun ziola. Azpimarratzekoa da desanbiguazioari dagokionez sistemak emaitza onak lortu zituela.

- **UBC Entity Recognition and Disambiguation at ERD 2014.**

  Ander Barrena, Eneko Agirre and Aitor Soroa. ***UBC Entity Recognition and Disambiguation at ERD 2014.*** *Entity Recognition and Disambiguation Challenge - ERD 2014.* Gold Coast, Australia. 2014.

  - ERD 2014[14] txapelketaren helburua, entitateen aipamen identifikazioa eta desanbiguazioa bultzatzea da. Horretarako, txapelketa bat antolatu zen bi azpimultzo nagusitan banatua. Batetik testu motzen desanbiguazioa, hau da, bilatzaileetan egiten diren kontsultena. Bestetik, testu luzeen edo arrunten desanbiguazioa. Ataza honen gakoa desanbiguazioa denbora tarte baten barruan egitea da, 20 segundo testu motzetan eta 60 segundo luzeetan. Aurkeztutako sistemak 6. eta 10. postuak lortu zituen aipatutako atazetan. Sistema hau algoritmo globaletan oinarritzen da desanbiguazioa burutzeko.

- **Izen-aipamenak desanbiguatu eta Wikipediara lotzen.**

  Ander Barrena, Eneko Agirre, Jokin Perez de Viñaspre eta Aitor Soroa. ***Izen-aipamenak desanbiguatu eta Wikipediara lotzen.*** *Ikergazte - Firts Conference For Basque Researchers 2015.* Durango, Basque Country. 2015.

  - Artikulu hau 5 kapituluan aurkeztuko den artikuluaren euskarazko bertsioa da. Horretaz aparte, euskarazko EID sistema sortzeko lehen urratsak eman dira. Artikulua Ikergazte[15] konferentzian aurkeztu zen.

- **Matching Cultural Heritage items to Wikipedia.**

  Eneko Agirre, Ander Barrena, Oier Lopez de Lacalle, Aitor Soroa, Samuel Fernando and Mark Stevenson. ***Matching Cultural Heritage items to Wikipedia.*** *Proceedings of the eighth international conference on Language Resources and Evaluation LREC-2012* Istanbul, Turkey. 2012.

  - Argitalpen honek ondare kulturaleko elementuak sistema automatiko bidez Wikipedia artikuluekin aberastea posible den ikertu eta ebaluatzen du. Horretako aipamenen identifikazio eta desanbiguaziorako oinarrizko sistema azaltzen du. Bide batez EID atazaren aplikazio erreal baten prototipoa erakusten du.

[14] `http://www.msr-waypoint.net/en-us/um/people/minchang/publication/ERD2014.pdf`

[15] `http://www.ueu.eus/ikergazte/`

- **PATHSenrich: a Web Service Prototype for Automatic Cultural Heritage Item Enrichment.**

  Agirre E., Barrena A., Fernandez K., Miranda E., Otegi A. and Soroa A. ***PATHSenrich: a Web Service Prototype for Automatic Cultural Heritage Item Enrichment.*** *Research and Advanced Technology for Digital Libraries, International Conference on Theory and Practice of Digital Libraries, TPDL 2013.* Valletta, Malta. 2013.

  – Artikulu honek aurreko artikuluaren prototipoa oinarritzat hartuta, aplikazio erreala aurkezten du.

- **Lexical semantics, Basque and Spanish in QTLeap: Quality Translation by Deep Language Engineering Approaches.**

  Eneko Agirre, Iñaki Alegria, Nora Aranberri, Mikel Artetxe, Ander Barrena, Antonio Branco, Arantza Diaz de Ilarraza, Koldo Gojenola, Gorka Labaka, Arantxa Otegi and Kepa Sarasola. ***Lexical semantics, Basque and Spanish in QTLeap: Quality Translation by Deep Language Engineering Approaches.*** *Procesamiento del Lenguaje natural SEPLN 2015.* Alicante, Spain. 2015.

  – Artikulu honetan itzulpen automatikoa hobetzeko helburuaz semantika eta analisi sintaktiko sakona erabiltzen dira. Semantikaren arloan EID sistemak erabiltzen dira itzulpenaren kalitatea hobetzeko.

Tesi honek iraun duen denboran hainbat proiektutan parte hartu da, EID sistemak hainbat domeinutan aplikatuz.

- **PATHS: Personalized Access To cultural Heritage Spaces,**[16] Proiektu hau, Europeana[17] gisako ondare kulturaleko bilduma erraldoietan, bilduma digitalen arteko bisitaldi gidatu eta pertsonalizatuak eskaintzeko aplikazioa garatzean datza. Ibilbide honetako elementuak Wikipedia artikuluekin aberasten dituen EID sistema garatu zen.

[16] `http://group.europeana.eu/web/guest/details-paths/`
[17] `http://www.europeana.eu/portal/en`

- **READERS: Evaluation And DEvelopment of Reading Systems,**[18] Proiektu honen helburua kanpo-ezagutza automatikoki eskuratzeko asmoz, testu kantitate erraldoiak irakurtzeko sistema garatzea da. Horretarako, testuetako izen-aipamenak ezagutza-baseetara lotzen dira.

- **QTLeap: Quality Translation by deep Language Engineering Approaches,**[19] Proiektu honek itzulpen automatikoaren kalitatea hobetzeko asmotan, hizkuntzaren sakoneko ingeniaritza metodologiak aztertzen ditu . Batez ere, izenen itzulpenaren kalitatea hobetzeko, itzuli nahi den testuan izenak desanbiguatuak izatea eskatzen da.

- **TUNER: Automatic domain adaptation for semantic processing.** Proiektu honetan domeinu egokitzapen automatikoa semantikaren prozesamenduan burutzen da. Horretarako, ezinbesteko ataza izango da EID.

1.6 Aurrekariak Ixa taldean

Tesi honen ikerketa IXA taldean[20] egin da. Talde honek Euskal Herriko Unibertsitatean hizkuntzaren prozesamenduan dihardu lanean. Bere ikerketaren ardatza euskarara bideratzen duen arren, beste hizkuntzetan ere adituak dira. Tesi-lan hau IXA taldean kokatzeko, honekin zerikusia duten beste hiru tesi aipatuko dira jarraian.

EID atazak erlazio estua du hitzen adiera desanbiguazioarekin. Hitzek eta izen-aipamenek testuinguruaren arabera adiera ezberdina dute. HAD atazan hainbat lan egin da IXA taldean. Adibidez (Martinez 2004) tesian, tresna bat garatzeko lehen urratsak eman ziren. Horretarako, ezaugarri sintaktiko, semantiko eta domeinukoak erabiltzen ziren. Bestalde, (Lopez de Lacalle 2009) tesian kernel metodo ezberdinak uztartu ziren domeinu aldaketei aurre egiteko.

Tesi-lan honen aurrekari gisa, (Fernandez 2012) tesiak euskarazko entitateak automatikoki lantzen ditu. Horretarako, entitate izenak identifikatu, sailkatu, itzuli eta desanbiguatzen ditu. Baliabide urriko hizkuntza izanik, baliabideen berrerabilpenean eta metodo ez-gainbegiratuetan arreta jartzen

[18] `http://www.chistera.eu/projects/readers`
[19] `http://qtleap.eu/`
[20] `ixa.si.ehu.es`

du. Metodo sinpleen konbinaketak hobesten ditu metodo sofistikatuen aurrean. Azkenik, euskararen ezaugarri morfosintaktikoen eragina aztertzen du ataza honetan.

2

Wikipedia, entitateen ezagutza-basea



Atal honetan tesi honetako ardatz nagusia aztertuko da, Wikipedia hain zuzen. Batetik, EID sistemek erabiliko duten ezagutza-basea da, eta desanbiguatuko diren izen-aipamenak Wikipediako artikuluetara lotuko dira. Bestetik, EID sistemek erabiliko duten ezagutza bertatik eskuratuko da.

Wikipedia[1] Wikimedia Foundation[2]-en entziklopedia eleanitza eta eduki askekoa da. Bertako artikuluak mundu osoko erabiltzaileek idazten dituzte,

[1] `http://www.wikipedia.org`
[2] `http://en.wikipedia.org/wiki/Wikimedia_Foundation`

eta orduro eguneratzen diharduen baliabidea da. Gaur egun, 294 hizkuntza ezberdinetan idatzitako 41 milioi artikuluk osatzen dute.[3]

Jarraian, Wikipediako egitura osatzen duten ezaugarriak banan banan azalduko dira: artikuluak, aingurak, birbideratze-orriak eta desanbiguazio-orriak hurrenez hurren.

2.1 Artikuluak

Artikuluak edo sarrerak eduki entziklopedikoa duten orriak dira, eta kontzeptuak edo entitateak deskribatzen dituzte. Kontzeptuak objektu baten irudikapen abstraktuak dira, adibidez musikariak (`Musician`) edo musika taldeak (`Musical_ensemble`). Entitateak existitzen diren (edo ziren) pertsona, leku edo erakundeak dira, adibidez, `Jeff_Beck` eta `The_Yardbirds`.

Artikuluen identifikadore unibokoa titulua da, eta tituluaren aldaerak edo formak, birbideratze-orrien eta desanbiguazio-orrien bitartez artikulura lotzen dira. Birbideratze eta desanbiguazio-orriak ez dira artikuluak kontsideratzen, ez baitute eduki entziklopedikoa eskaintzen.

2.2 Aingurak

Artikuluen edukian beste artikuluetara doazen estekak aingura bitartez egiten dira. Wikipedian artikulu-tituluak ez bezala, aingura-testuak errepikatuak egon daitezke. Aingura-testuak erreferentziatu duten artikuluaren tituluaz agertu daitezke. Adibidez, 2.1 irudian Wikipediako artikulu baten edukia ikus daiteke. *The Yardbirds* aingurak `The_Yardbirds` artikulura estekatzen du. Hala ere, aingura-testuetan artikulua izendatzeko modu eta aldaera ezberdinak azaldu daitezke. Esate baterako, adibideko testuan *rock* aingurak `Rock_music` artikulura estekatzen du.

2.3 Birbideratze-orriak

Birbideratze-orriak artikulu-tituluen aldaerak edo formak artikulura lotzeko beste bide bat dira. Erabiltzailea ahalik eta azkarren artikulura bideratzeko

[3]Data 2016-11-24

Jeff Beck

From Wikipedia, the free encyclopedia

Geoffrey Arnold "Jeff" Beck (born 24 June 1944) is an English rock guitarist. He is one of the three noted guitarists to have played with The Yardbirds (the other two being Eric Clapton and Jimmy Page). Beck also formed The Jeff Beck Group and Beck, Bogert & Appice.

Much of Beck's recorded output has been instrumental, with a focus on innovative sound, and his releases have spanned genres ranging from blues rock, hard rock, jazz fusion, and an additional blend of guitar-rock and electronica. Although he recorded two hit albums (in 1975 and 1976) as a solo act, Beck has not established or maintained the sustained commercial success of many of his contemporaries and bandmates.[1][2] Beck appears on albums by Mick Jagger, Tina Turner, Morrissey, Jon Bon Jovi, Malcolm McLaren, Kate Bush, Roger Waters, Donovan, Stevie Wonder, Les Paul, Zucchero, Cyndi Lauper, Brian May, Stanley Clarke, Screaming Lord Sutch and ZZ Top.

2.1 irudia – Wikipedian `Jeff_Beck` artikuluaren lehen bi parrafoak. Urdinez dauden hitz-kateak beste artikuluetara aingurak dira.

sortuak dira. Birbideratzeen bidez artikuluak izendatzeko sinonimoak, laburdurak, izen-aldaerak edo errore ortografikoak kudeatzen dira. Adibidez, `Geoffrey_A._Beck` eta `Geoffrey_Beck` orriak birbideratze-orriak dira, hain zuzen, `Jeff_Beck` artikulura birbideratzen dutenak.

2.4 Desanbiguazio-orriak

Wikipediako desanbiguazio-orriek adiera ezberdinen artean bereizteko loturak eskaintzen dituzte, eta artikulu-titulua oso anbiguoa den kasuetan erabiltzen dira. Adibidez, `Beck` artikuluak Beck Hansen musikaria deskribatzen du, baina titulua oso anbiguoa da. Horregatik, `Beck_(disambiguation)` orriak beste adiera posibleak eskaintzen ditu (ikus 2.2 irudia). Desanbiguazio-orrian adiera lehenetsia `Beck` (Beck Hansen) da, baina bestelako artikuluetara estekak azaltzen dira: `Beck_Weathers`, `Beck_Lakes` edo `River_Beck`. Hala ere, desanbiguazio-orrietan ez dira adiera guztiak azalduko, ez dira exhaustiboak. Adibidez, `Jeff_Beck` artikulua ez da estekatuta azaltzen.

Beck (disambiguation)

From Wikipedia, the free encyclopedia

Beck (born 1970) is an American singer and songwriter.

Beck may also refer to:

People [edit]

- Beck (surname), including a list of people with the family name
- Beck Weathers (born 1946), American pathologist and survivor of the 1996 Mount Everest disaster

Places [edit]

- Beck (stream), an English dialect word for a small stream
- Beck Lakes, twin lakes in California
- River Beck, in South London, England
- Mount Beck, Mac. Robertson Land, Antarctica
- Beck Peak, Ross Dependency, Antarctica
- Cape Beck, Black Island, Ross Dependency, Antarctica

2.2 irudia – Wikipedian `Beck_(disambiguation)` desanbiguazio-orriaren adibidea.

2.5 Wikipediatik informazioa erauzten

Tesi honetan landuko diren EID sistemek erabiliko duten ezagutza Wikipediatik eskuratuko da. Bertako ezaugarriak ustiatze aldera, ezagutza lau baliabidetan errepresentatuko da: ezagutza-basea, hiztegia, grafoa eta artikuluen testuinguru-bildumak izenekoak.

2.5.1 Ezagutza-basea

Tesian landuko diren EID sistemen desanbiguazioaren emaitza Wikipediako entitate edo kontzeptuak dira. Honenbestez, Wikipediako artikulu bildumak ezagutza-basea errepresentatuko du.

Ezagutza-baseen artean DBpedia (Bizer *et al.* 2009), Wikidata, BabelNet (Navigli and Ponzetto 2012a) edo Freebase (Bollacker *et al.* 2008) aurkitu daitezke, eta hauen oinarria ere Wikipedia da. Beraz, tesi honetako EID sistemen irteerak zuzenean lotu daitezke ezagutza-base hauetara.

2.5.2 Hiztegia

EID sistemek testuetan azaltzen diren izen-aipamenak Wikipediako artikulu egokietara lotuko dituzte. Horretarako, testua eta artikuluen arteko zubia eraikiko da, hiztegia hain zuzen ere (Chang *et al.* 2010).

Hiztegiaren egitura sarrera eta erlazionatutako artikuluen zerrendaz osatzen da. Sarrerak letra xehe eta azpimarraz elkarturiko hitz-kateek osatuko dute. Hiztegian sarrera eta artikuluen erlazioa maiztasunarekin puntuatuko da, eta hau litzateke egituraren adibidea:

sarrera `artikulua1`:maiztasuna `artikulua2`:maiztasuna

Hiztegia eraikitzeko lehenik eta behin, Wikipediako artikulu bakoitza bere tituluaz erlazionatuko da. Sarrera sortzean parentesi arteko hitzak egongo balira, hauek kenduko lirateke. Adibidez:

- *jeff_ beck* `Jeff_Beck:1`
- *eric_ clapton* `Eric_Clapton:1`
- *jimmy_ page* `Jimmy_Page:1`
- ...

Ondoren, Wikipediako birbideratze-orrien tituluak birbideratzen dituzten artikuluekin erlazionatuko dira (ikus 2.3 ataleko birbideratze-orrien adibideak):

- *geoffrey_ a._ beck* `Jeff_Beck:1` ←
- *geoffrey_ beck* `Jeff_Beck:1` ←
- *jeff_ beck* `Jeff_Beck:1`
- *eric_ clapton* `Eric_Clapton:1`
- *jimmy_ page* `Jimmy_Page:1`
- ...

Wikipediako desanbiguazio-orrien tituluak orrian estekatzen diren adiera guztiekin erlazionatuko dira (ikus 2.4 ataleko desanbiguazio-orriaren adibidea)[4]:

[4] `Beck_(disambiguation)` titulua sarrera bihurtzean, letra xehez eta parentesi artekoa kenduz egingo da → *beck*.

- *beck* `Beck:1` `Beck_(surname):1` `Beck_Weathers:1` ... ←
- *geoffrey_ a._ beck* `Jeff_Beck:1`
- *geoffrey_ beck* `Jeff_Beck:1`
- *jeff_ beck* `Jeff_Beck:1`
- *eric_ clapton* `Eric_Clapton:1`
- *jimmy_ page* `Jimmy_Page:1`
- *...*

Azkenik, Wikipediako artikuluetako aingurak sarrera-artikulu erlazio gisa erabiliz, hiztegia osatuko da:

- *beck* `Beck:1555` `Beck_(manga):70` ... `Jeff_Beck:3` ... ←
- *geoffrey_ a._ beck* `Jeff_Beck:1`
- *geoffrey_ beck* `Jeff_Beck:1`
- *jeff_ beck* `Jeff_Beck:1210` `The_Jeff_Beck_Group:1` ... ←
- *eric_ clapton* `Eric_Clapton:3339` `Eric_Clapton_(album):28` ... ←
- *jimmy_ page* `Jimmy_Page:1418` `Jimmy_Page_(footballer):3` ... ←
- *...*

2.5.3 Hiperesteken grafoa

Wikipediako hiperesteken egitura grafo gisa errepresentatu daiteke, aurrerago grafo honek duen informazioa ustiatzeko helburuarekin. Algoritmo globaletan oinarritzen diren sistema gehienek hiperesteken grafoa edo honen azpimultzo bat erabiltzen dute (Alhelbawy and Gaizauskas 2014, Moro *et al.* 2014, Chisholm and Hachey 2015, Pershina *et al.* 2015).

Grafoa eraikitzeko urratsak bi dira: adabegiak artikuluak dira, eta ertzak beraien artean existitzen diren hiperestekak. Demagun 2.1. irudian ikusten den `Jeff_Beck` artikuluko edukia aztertzen dela. Adibidean, lehen parrafoa hartu, eta hiperesteka edo aingura bakoitza, dagokion artikuluarekin lotuz, 2.3 azaltzen den azpigrafo zuzendua sortzen da. Wikipedia goitik behera prozesatuz, eta artikulu bakoitzean azaltzen diren estekak dagokion artikulura lotuz, Wikipediako grafoa sortzen da.



2.3 irudia – Wikipediako `Jeff_Beck` entitatearen artikuluko lehen parrafoko hiperestekekin sortutako grafo zuzendua.

2.5.4 Artikuluen testuinguru-bildumak

Wikipedia ikasketa-corpus gisa errepresentatu daiteke, ikasketa-automatikoa aplikatzeko helburuarekin (Milne and Witten 2008b). Baliabide hau artikuluen testuinguru-bildumak gisa izendatuko da. Orokorrean, algoritmo lokaletan oinarritutako sistema gehienak erabiltzen duten baliabidea da (Han and Sun 2011, Houlsby and Ciaramita 2014, Lazic *et al.* 2015).

Artikulu bakoitza estekatuta azaldu deneko testuinguru-bildumak eginez, Wikipedia ikasketa-corpus gisa errepresentatzen da. Horrela, artikulu bakoitza zein aingura-testurekin eta zein testuingurutan azaldu den erakutsiko da. Baliabidearen adibidea `Jeff_Beck` eta `Beck_Weathers` artikuluentzat 2.4 irudian ikus daiteke.



2.4 irudia – Wikipediako `Jeff_Beck` eta `Beck_Weathers` artikuluen testuinguru-bildumen adibideak. Beltzez testuingurua eta urdinez aiguratestua ikus daitezke.

3

Arloaren egoera

Atal honetan arloaren egoeraren azterketa egingo da, arreta berezia jarriz algoritmo global eta lokaletan. Horretarako, teknika hauek aplikatzen dituzten bi artikulu sakonduko dira. Izan ere, hauek izango dira tesi honetan garatuko diren EID sistemen oinarri nagusiak. Ondoren, arloaren egoerako EID sistemen azterketa orokorra egingo da. Sistemetako askok bi algoritmoen ezaugarriak konbinatzen dituztela ikusiko da.

Arloaren egoerako EID sistemek eskuz identifikatutako izen-aipamenak erabiltzen dituzte, eta hautagaien-sorkuntza hiztegi bidez egiten dute.[1] Orokorrean, ez da arreta berezia jartzen hautagaien-sorkuntzaren atalean, naiz eta, sistemaren eraginkortasunarentzat oso garrantzitsua izan.

3.1 Ausazko ibilbideak: algoritmo globalak

EID sistema asko algoritmo globaletan oinarritzen dira izen-aipamenak desanbiguatzeko (Agirre and Soroa 2009, Hoffart *et al.* 2011, Alhelbawy and Gaizauskas 2014, Moro *et al.* 2014, Pershina *et al.* 2015). Algoritmo globalak, orokorrean, sistema ez-gainbegiratuak dira, eta ezagutza-baseen egitura erabiltzen dute desanbiguazioa burutzeko.

Horretarako, ezagutza-basetik erauzitako grafoan zehar ausazko ibilbideak algoritmoa aplikatu daiteke. Hau azaltzeko (Agirre *et al.* 2014) artikuluko *PageRank* algoritmoa (Brin and Page 1998) erabiliko da.

[1] Izen-aipamena hiztegiko sarreran bilatu, eta erlazionatutako artikuluak (entitateak edo kontzeptuak) hautagaiak izatera pasako dira.



3.1 irudia – Ausazko ibilbidea 4 urratsetan errepresentatu da: A,B,C eta D puntuetan hasten direnak. Urrats bakoitzak ausazko ibilbidea erakusten du, ibiltariak ausazko salto bat egitea erabaki duen arte. Zenbakiek adabegi bakoitza zenbat aldiz bisitatu den adierazten dute.

PageRank algoritmoaren ideia nagusia grafoko adabegien garrantzia kuantifikatzea da, grafoaren egituran duten garrantzia erlatiboa kontuan izanda. Demagun grafoan zehar ausazko ibilbide bat egiten dela. Demagun ere ausazko ibiltariak, adabegi bat bisitatzen duen bakoitzean bi aukera dituela: ausazko ibilbidean jarraitu edo ausaz grafoko beste adabegi batera salto egin (ikus 3.1). Ausazko ibilbidean zehar ibiltaria behin baino gehiagotan pasatuko da ondo konektatuta dauden adabegietatik, eta ez hainbeste konexio gutxi dituztenetatik. Ibilbide honetatik probabilitate bat zenbatetsi daiteke grafoko adabegi bakoitzeko.

Izan bitez N adabegidun G grafoa, eta d_i, i adabegitik beste adabegietara doazen esteka kopurua. Demagun M matrizea $N \times N$ tamainakoa dela, eta $M_{ij} = \frac{1}{d_i}$ baldin eta esteka bat existitzen bada $i$tik $j$tara. N elementu dituen P bektorearen kalkulua ekuazio honek definituko luke:

$$\mathbf{P} = cM\mathbf{P} + (1 - c)v \tag{3.1}$$

Formularen lehen batukariak ibiltariaren ausazko ibilbidea errepresentatzen du, eta bigarrenak, ibiltariak ausaz grafoko edozein adabegitara salto egiteko probabilitatea. $v = N \times 1$ bektorearen balioak $1/N$ra hasieratuz, grafoko edozein adabegietara salto egiteko probabilitatea uniformea da. Batukarien garrantzia c koefizienteak zehazten du, eta orokorrean, ibiltariak ausazko ibilbidean jarraitzea hobesten duten balioak ezartzen dira. *PageRank* algoritmoa 3.1 ekuazioa iteratiboki eta konbergitu arte exekutatuz kalkulatzen da. Ausazko jauziak egin ezean, ezin da bermatu P bektorearen kalkuluak konbergituko duenik.

Orain arteko azalpenean v bektorea $1/N$ balio uniformeekin definitu da. Beraz, ibiltariak grafoko edozein adabegitara probabilitate berdinarekin salto egingo du. Baina bektore hau moldatuz, ibiltariaren ausazko saltoak adabegi jakin batzuetara bideratu daitezke, *PageRank* algoritmoaren bertsio pertsonalizatua exekutatuz (Personalized *PageRank* edo PPR).

3.1.1 Ausazko ibilbideak EID atazan

EID atazari berriz eutsiz, ausazko ibilbide pertsonalizatuak erabiliz izen-aipamenak desanbiguatzeko adibide bat planteatuko da. Demagun, testu berean *Clapton*, *Beck* eta *Page* aipamenak agertzen direla, eta hiztegitik artikulu-hautagaien zerrendak sortzen direla:

- *Clapton* → `Eric_Clapton`, `Upper_Clapton` eta `Clapton_Stadium`
- *Beck* → `Beck_Weathers`, `Beck_Hansen` eta `Jeff_Beck`
- *Page* → `Page_(paper)`, `Jimmy_Page` eta `Web_Page`

Izan bedi Wikipediako grafoa non adabegiak artikuluak diren, eta ertzak artikuluen arteko hiperestekak. *Beck* desanbiguatzeko, nahikoa litzateke ausazko saltoak *Clapton* eta *Page* izen-aipamenen artikulu-hautagaietara bideratzea. Honek, ausazko ibilbideen pertsonalizazioa testuinguruaren arabera gidatzen du. Azkenik, ausazko ibilbide pertsonalizatuaren emaitza `Beck_Weathers`, `Beck_Hansen` eta `Jeff_Beck` artikuluentzat jaso, eta lortu duten probabilitate banaketaren arabera sailkatuko lirateke.

3.2 Hitz multzoak eta eredu sortzailea: algoritmo lokalak

EID alorrean algoritmo lokalen erabilera, eta batez ere, hitz multzoena, nabarmena izan da (Hoffart *et al.* 2011, Han and Sun 2012, He *et al.* 2013, Lazic *et al.* 2015). Izan ere, teknika erraz eta eraginkorrak dira. Orokorrean, eredu gainbegiratuak izaten dira eta gehienetan, Wikipediako aingura-artikulu erlazioa erabiltzen dute ikasketa burutzeko (Milne and Witten 2008b).

Jarraian, (Han and Sun 2011) artikulua oinarritzat hartuta, eredu lokal bat azalduko da. Hasteko, eredu sortzaile bat planteatuko da hiru urratsetan definituko dena.

(1) Izan bedi e entitate bat, eredu sortzaileak ezagutza-baseko entitateen banaketatik sortzeko gaitasuna duena ($P(e)$).
(2) Demagun e entitateak, bere burua izendatzeko erabili diren s izen-aipamenen banaketa sortzeko gai dela ($P(s|e)$).
(3) Azkenik, izan bedi e entitateak sortu ditzakeen c testuinguruen banaketa bat ($P(c|e)$).

Honenbestez, eredu sortzailearen azalpenean oinarrituta, s izen-aipamena eta c testuingurua e entitateak sortzeko duen probabilitatea zenbatetsiko da. Horretarako, jarraian datorren formula erabiliko da:

$$P(s, c, e) = P(e)P(s|e)P(c|e) \tag{3.2}$$

EID atazan eredua aplikatzeko, 3.2 formulan probabilitate altuena lortzen duen e entitatea, c testuinguruko s izen-aipamenari lotuko diogun entitatea izango da:

$$\arg\max_e P(c, s, e) = \arg\max_e P(e)P(s|e)P(c|e) \tag{3.3}$$

Ereduak hiru ezagutza barneratzen ditu, $P(e)$ entitatearen-ezagutza, $P(s|e)$ izenen-ezagutza eta $P(c|e)$ testuinguruaren-ezagutza. Lehenengo bi ezagutzak aldez aurretiko probabilitateetan oinarritzen dira, eta hiztegiko maiztasunekin zenbatezten dira. Ezagutza lokala hirugarren ezagutzak errepresentatuko du, eta horretarako, hitz multzoak erabiliko dira. Hitz multzoak sortzeko artikuluen testuinguru-bildumak erabiltzen dira. Jarraian, ezagutza bakoitza nola zenbatetsi azalduko da.

Entitatearen ezagutzak e entitatea sortzeko probabilitatea erakutsiko du. Gero eta gehiagotan aipatua izan, orduan eta balio altuagoa jasoko du entitateak. $P(e)$ probabilitatea zenbatesteko jarraian datorren formula erabiliko da:

$$P(e) = \frac{C(e) + 1}{|M| + N} \tag{3.4}$$

Egiantza handieneko zenbatezketa erabiliz, entitatea hiztegian zenbat aldiz aipatu den zenbatu ($C(e)$), eta normalizatuko da. Entitatea inoiz erreferentziatu ez bada, probabilitateak 0 eman ez dezan, +1 izeneko leunketa aplikatuko da. $|M|$ eta N balioak aipamen kopuru totala eta entitate kopurua dira, hurrenez hurren.

Izenaren ezagutzak e entitatea izanda s izen-aipamena sortzeko gaitasuna erakutsiko du. $P(s|e)$ probabilitatea jarraian datorren formulak zenbatetsiko du:

$$P(s|e) = \frac{C(e, s) + 1}{\sum_{s} C(e, s) + S} \tag{3.5}$$

Berriz ere egiantza handieneko zenbatezketaz e entitatea s aipamenarekin zenbat aldiz aipatu den zenbatu ($C(e, s)$), eta normalizatuko da. Leunketa metodo berdina aplikatuz, 0 probabilitateak ekidituko dira. S, e entitatea izendatzeko erabili diren izen ezberdinen kopurua da.

Testuinguruaren ezagutzak e entitateak c testuingurua sortzeko duen gaitasuna modelatuko du, eta $P(c|e)$ gisa izendatuko da. Eredu honek $P(c|e)$ balio altua emango dio baldin eta e entitatea askotan azaldu bada c testuinguruan.

c testuingurua n terminodun $w_1, w_2, w_3...$ hitz multzo gisa errepresentatzen da. $P(c|e)$ banaketa w termino bakoitza e entitateak sortzeko duen probabilitatearen biderkaduraz kalkulatzen da:

$$P(c|e) = P(w_1|e)P(w_2|e)...P(w_n|e) \tag{3.6}$$

$P(w|e)$ak zenbatesteko termino horrek e entitatearen testuinguruan azaltzeko duen probabilitatea kalkulatuko da. Zenbatezketa hau 2 kapituluko 2.5.4 atalean azaldu diren artikuluen testuinguru-bildumetatik eskuratzen

